

DEBA / Zuhatza Euskara Elkarteak berriro dakar irakurmena sustatzeko ekintza

Zuhatza Euskara Elkarteak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena aurten ere martxan jarri du. Herriko bizilagunek ekintza honetaz goatzeko aukera izango dute uztailaren 24a arte Ostolaza Udal Liburutegia eta Arkatza zein Masillo liburu-denden elkarlanari esker.

Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, apirilean aurkeztu zuen ekimen honen bosgarren edizioa Donostian egindako agerraldi batean. Euskarazko irakurmena sustatzea da ekintza honen helburua. "Euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi dugu: euskararen erabilera gozagarria sustatu nahi dugu, irakurtzeak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez", azaldu zuen.

Euskal Herriko 12 herritan gauzatuko da egitasmoa, eta Deba da horietako bat. Funtzionamendua erraza da: irakurleak euskarazko liburu bat hartu beharko du udal liburutegitik eta bertako mailegu zerbitzua erabilia etxera eramanez, han gustura irakurtzeko. Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, hiru galdera erraz dituen fitxa bat bete eta erosketa-txeke bat emango diote liburutegian bertan. Txeke horrekin liburu-dendara joan eta nahi duen euskarazko beste edozein liburu %25 merkeago erosi ahal izango du. Zuhatzako bazkide izanez gero, berriz, txekearen balioa %50ekoa izango da. Azkenik, erosi duen liburu hori lagun bati edota norbere buruari oparitzea proposatzen du egitasmoak.